

MAHAI TEKNIKOAK

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren aurrerapenaren aurkezpena Bilbo Metropolitarrako teknikariei

Data: 2018-03-07

Lekua: Foru Agiritegia, Maria Diaz Harokoa 11, 48013 Bilbo

Iraupena: bi ordu

BFAko ordezkariak

Izena	Kargua
Ángel Anero Murga	Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusia
Idoia Garay	Lurralde Antolamenduko Ataleko burua
Jose Manuel Alonso	Lurralde Antolamenduko Atala
Elisa Cano	Lurralde Antolamenduko Atala
José Crespo Gonzalez	Lurralde Antolamenduko Atala
Domingo Ruiz Elua	Lurralde Antolamenduko Atala

Laguntza teknikoak

Izena	Enpresa
Aitor Sarria Bilbao	Estudio K
Cristina López González	Basoinsa
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Aida Lopez	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental

Aurkezpen instituzionala

Ángel Anerok, Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusiak, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren aurrerapena aurkezteko saioa hasi du bertaratutako guztiei –hau da, eremu funtzionaleko ia udalerri guztietako ordezkari tekniko eta politikoei– eskerrak emanez.

Horren ondoren, azaldu du saio hau dela aurrerapen-dokumentua aurkezteko faseari begira egingo diren ekintza eta tailerretako lehena. Azaldu duenez, mahai teknikoaren ostean, 5 partaidetza-tailer egingo dira eremu funtzionaleko zenbait udalerritan, herritarren parte-hartze aktiboa helburu hartuta. Horrez gainera, osagarri gisa, erakusketa ibiltari bat 35 udalerrietan zehar ibiliko da hurrengo hilabeteetan, aurrerapen-dokumentuan jasota dauden helburu nagusiak azaltzeko eta galdesortak herritarren eskura jartzeko, haien ekarpenak jasotze aldera.

Horregatik guztiagatik, bereziki eskertu du partaidetza-tailerrak egingo diren udalerriek emandako laguntza (Basauri, Portugalete, Sondika, Getxo eta Bilbo), baita gainerako udalerriek komunikazioaren arloan, oro har, emandako laguntza ere.

Aurrerapenaren aurkezpena

Aitor Sarriak, aurrerapen-dokumentua idazteko ardura izan duen enpresaren (**Estudio-K**) ordezkari den aldetik, hitza hartu du eta aurrerapen-dokumentuan bildutako helburu eta estrategia nagusiak berrikusi ditu.

Aurkezpena eskura daiteke webgune honetan, dokumentazioari buruzko atalean:
<http://bizkaia.eus/LPPBMberrikuspena>

Hasierako Dokumentu Estrategikoaren aurkezpena

Cristina Lopezek, ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko ardura duen enpresaren (**Basoinsa**) ordezkari den aldetik, oraindik orain aurkeztu den hasierako dokumentu estrategikoaren prestaketari buruzko azalpenak eman ditu.

Aurkezpena eskura daiteke webgune honetan (dokumentazioari buruzko atalean):
<http://bizkaia.eus/LPPBMberrikuspena>

Galderak eta ekarpenak egiteko unea

Bi aurkezpenen ostean, **parte-hartze publikoaren ardura duen lantaldeak (Inguru eta Paisaje Transversal)** hasiera eman dio aretoan bildutako herritarrek galderak (G) eta ekarpenak (E) egiteko txandari, horiek guztiak lantalde arduradunei eta Bizkaiko Foru Aldundiko kideei helarazteko.

E- Ingurumen-ebaluazio estrategikoan kontuan hartzea Eusko Jaurlaritzak berriki argitaratu duen natalitate-plana.

E- Efizientzia energetikoaren ikuspegia kontuan hartzea, asko baldintzatzen baitu, eta ez dirudi dokumentuan aintzat hartu denik.

E- Enpresek (CEBEK) herritarren parte-hartzearekin bat egin dezatela sustatzea.

- Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusiak gogora ekarri du jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua sortzeko lurralde-plan sektorialaren berrikuspen partzial bat egiten ari direla, merkataritza-gune handiei dagokienez, eta bertaratutakoei eskatu die egin ditzatela dagozkien alegazioak.

E- Bizitegien hedapenari buruz, ildo estrategiko batzuk planteatzea.

G- Zer bizitegi-formula garatu dira udalerri bakoitzean?

- Laguntza teknikoaren arduradun batek azaldu du hainbat arlo aintzat hartu direla, abiapuntu-esparrua ahalik eta hobekien ezagutzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak erantsi dute hasieran onetsitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenak matizazioen bat planteatzen duela Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko dekretuan jasotako kuantifikazio-formulari buruz; besteak beste, kuantifikazio minimoa kentzea. Nolanahi ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena zein Lurralde Plan Partzialarena izapidetzen diren bitartean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko dekretuaren bidez araututako prozedura bat dago.

G- Nola bateratzen dira, alde batetik, Lurralde Plan Partziala, eta bestetik, errepideen Lurralde Plan Sektoriala, une honetan berrikuspen-prozesuan dagoena?

- Laguntza teknikoaren arduradunak lantaldeen arteko koordinazioa aipatu du.